



Unibertsitateko gazteen argudio-gaitasunak: euskarazko eztabaida txapelketak aztergai



Ioar Etxebarria & Amaia Munarriz-Ibarrola (amaia.munarriz@ehu.eus)

Garoa Lizartza & Leire Diaz de Gereñu (leire.diaz@ehu.eus)

Euskal Herriko Unibertsitatea, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

ehukultura i³



1. PROIEKTUAREN HELBURUAK

- Argudio gaitasunen garapena hobeto ezagutzea euskaraz: oinarrizko hezkuntzatik (Larringan & Idiazabal, 2005; Garro & Idiazabal, 2005; Zabala, 2009; Garro et al., 2021) goi-mailako hezkuntzara.
- EHUko ikasleen gaitasun komunikatibo eta linguistikoak deskribatzea unibertsitate eztabaida testu-generoan:
 - Jendaurreko ahozko komunikazioa hobetzeko eta mundu akademikoari eta lan-munduari begira eskaintzen dituen baliabideak ezaugarritzeko.
 - Zein komunikazio, sintesi eta argudiaketa gaitasun garatzen laguntzen duen ezagutzeko.

2. EZTABAIDA TXAPELKETA

- Euskara Zerbitzua 10 urtez EHUko ikasleen euskarazko eztabaida sustatzen: *UPV/EHUko eztabaida taldea* ekimena
- EHUkultura ADUEEErekin batera: txapelketa eta formakuntza saioak.
- Euskarazko Eztabaida Txapelketaren **makroegitura**:




3. METODOLOGIA

Corpusa

- EHUko barne-liga:
- 36 minutu eta 1944 hitz
 - Finalean parte hartutako E taldea
- 2023/11/10ean Iruñeko Parlamentuan ospatutako Eztabaida Txapelketako finala:
- 66 minutu eta 4275 hitz
 - 2 taldez osatua (E taldea: kontra)

Analisisa



Irekiera atala	Antolatzaileen ongi-etorria	
	Epaimahaiaren aurre-hitzak	
Eztabaida lehia	Aldekoen sarrera	Kontrakoen sarrera
	Aldekoen lehen erreferutzioa	Kontrakoen lehen erreferutzioa
	Aldekoen bigarren erreferutzioa	Kontrakoen bigarren erreferutzioa
	Ondorioa	Ondorioa
Epaimahaiaren epaia	Talde-irabazlearen epaia	
	Hizlari hoberearen epaia	
Itxiera atala	Sari banaketa	
	Agurrak	

GAIA: *Giza intelgentzia hobetsi behar al da Intelgentzia Artifiliazaren ginetik?*

4. EMAITZAK


GrAL: Ioar Etxebarria

4.1. Diskurtso erreferitua


- Zehar estiloa nagusitzen da
- Aktualdua da nagusi (esandakoa jasotzen du)
- Iturria: debatean bertan aipatutakoak nagusi (ez adituenak).

Kontrakoan diskurtsoa ekarriz, **erakusten dute arretaz eta arduraz argudiatzen ari direla**. Debatearen izaera dialogikoa gauzatzen dute **diskurtso erreferitu egokiaren bitartez**.


4.2. Pertsonen erabilera



Testu ikuspegia: Testuratzte-mekanismoak



Eztabaida lehian egitura eta azpiatalen iraupena



GrAL: Garoa Lizartza

4.3. Baliabide metadiskurtsiboak

- Eztabaidaren **egitura finko** eta **zurrunaren berri emateko** metadiskurtsoa: argudio-bidea zehatz eta modu esanguratsuan eraikia ageri da:
 - Argudiaketaren **azpi atal bakoitzaren izaera eta helburuen araberako baliabide metadiskurtsibo aberats eta egokiak ugariak dira**: *guk argi daukagu...ez borobil batekin erantzuten dugu; gaur galdera bat egin digute; gure hiru argudio sendoeekin; beraiek garritako argumentuei buruz hitz egingo dut; gogorazazko dut; galderak zer esaten du?; datu horiek nondik ateratu daude?; ...*
 - Argudio-bidea adierazi eta ezaugarritzen da: tesia eta argudioak emateaz gain, **argudiaketa egoeraren berezko izaera dialogikoa** eta zehazki generoaren izaera **bereziki dialektikoa**.
 - Komunikazioaren ikuspegitik: norbere diskurtsoak lehiakide, epaimahai eta entzuleen **arreta eta ulermena gidatzen da**.

4.4. Lokailuak

- Kontzientzia osoa erakusten da konexio-baliabideen erabilera, **argudiaketa egoerako baldintza komunikatiboei hertsiki erantzuteko**:
 - **Arin baina eraginkorra den argudiaketa** egitea da lehentasuna, argudioen eta kontra-argudioen arteko loturak eta mailakatzeen bidez **indartzeko bereziki bideratutako antolatzaileen erabilera**.
 - Zenbait testu antolatzaile eta lokailuk **maiztasun handiagoa** dute, hizlari guztiengan errepikatzen dira: "batetik...bestetik", "lehenik eta behin...", baita amaiera emateko "beraz", "hori esanda", "borobilduz" eta gisakoak.
 - Nabarmen gailentzen da "beraz" → **ahozko lehia eta argudio egoera dialektikoaren** begiradapean erakusten da trebetasuna.

PROIEKTUAREN EKARPENAK eta AURRERA BEGIRAKOAK

- Euskarazko unibertsitate eztabaidak euskararen normalizatorako bidean jendaurreko ahozko praktikatzeko espazio diskurtsibo bereizgarria eskaintzen du.
- Konpetentzia elebiduna aztertze eta garatzeko baliabide emankorra da.
- Unibertsitateko oinarrizko gaitasunak eta zeharkakoak garatzeko prestakuntzari ekarpenak egiten dizkio (Arrue & Zarandona, 2021).
- Aukerak zabaltzen ditu ahozko argudiaketa-gaitasuna sustatzeko praktika berriak irudikatu eta esperimendatzeko.

ERREFERENTZIAK

Arrue, M., & Zarandona, J. (2021). El debate en el aula universitaria: construyendo alternativas para desarrollar competencias en estudiantes de ciencias de la salud. *Educación Médica*, 22, 428-432. <https://doi.org/10.1016/j.edumed.2019.10.016>.

Idiazabal I. & Larringan L.M. (2005) La construcción discursiva del tema en dos debates con jóvenes: consideraciones para la caracterización y la enseñanza del debate in J.M. Oro, J. Varela y J. Anderson (ed.) *Linguística aplicada al aprendizaje de lenguas*, Universidade de Santiago de Compostela: Servicio de Publicacións e Intercambio Científico, 197-207. ISBN: 84-9750-397-X

Garro, E. & Idiazabal, I. (2005). Debateak 10 urteko bi ikasle talde elebidunetan. Azterketa eta didaktika. *Ikastaria*, 14, 43-54.

Garro, E., Azpeitia, A., Sainz Osinaga, M. & Ozaeta, A. (2021). Debate soziozientifikoaren lanketa irakasleen prestakuntza-prozesu gogoetsu baten barruan. In Diaz de Gereñu, L., Manterola, I. & Garcia-Azkoaga, I.M. (arg.). *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai*. Euskal Herriko Unibertsitatea, 237-253.

Zabala, J. (2009). Kortesiaren azterketa euskarazko bi debatetan. *Euskera*, 54(2), 812-842.

ESKERRAK

EHUKultura eta Euskara zerbitzua (J.M. Apaolaza, M. Ibarluzea)
HEIS (B. Fernandez, A. Zawiszwski)
Eztabaida txapelketako partaideak